

## **ESKOLAKO AGENDA 21EKO UDAL DIAGNOSTIKOA EGITEKO GIDAREN AURKIBIDEA**

### **ESKOLAKO AGENDA 21EKO UDAL DIAGNOSTIKOA EGITEKO GIDAREN SARRERA**

*Dokumentazioaren aurkezpena eta gidaren edukien sarrera*

### **LAN GAIA: ALDAKETA KLIMATIKOA**

*Eskolako Agenda 21eko gaiaren azalpen laburra*

### **KLIMA ALDAKETARI BURUZKO UDAL DIAGNOSTIKOA**

*Ikastetxeei egokitutako klima aldaketari buruzko udal diagnostikoa*

### **UDALERRIKO KLIMA ALDAKETARI BURUZKO AZTERKETAK EGITEKO LAN TRESNAK**

*Ikastetxeetan erabil daitezken material eta baliabideak ikasleei klima aldaketari dagokion udal errealitatea gerturatzeko.*

### **HERRITARREN PARTAIDETZA. ESKOLETAKO AGENDA 21 ESKOLA- ERKIDEGOTIK UDALERRIRA HEDATZEKO LAN TRESNAK ETA MATERIALAK**

*Eskolako Agenda 21ekin erlazionatutako ikastetxeek egindako lanak udalerrian eta auzoan ezagutarazteko ideiak.*

### **KLIMA ALDAKETARI BURUZKO UDAL ETA UDALAZ GAINEKO BALIABIDEAK**

*Klima aldaketarekin erlazionatutako baliabideak. Bisitatzeko ekipamendu eta azpiegiturak.*

### **INGURUMEN HEZKUNTZARI BURUZKO UDAL ETA UDALAZ GAINEKO BALIABIDEAK**

*Eskolako Agenda 21eko prozesuak garatzeko ikastetxeentzako ingurumen hezkuntzako baliabideak.*

### **IKUZ-ENTZUNEZKO BALIABIDEAK ETA BALIABIDE BIBLIOGRAFIKOAK**

*Tokiko Agenda 21, Eskolako Agenda 21 eta lan gaiari buruzko dokumentazioa.*

## ESKOLAKO AGENDA 21EKO UDAL DIAGNOSTIKOAREN GIDAREN SARRERA

Agiri honetan aurkeztuko dugun **Eskola Agenda 21eko udal diagnostikoaren gida** Agendari atxikitzen zaizkion ikastegietarako lan tresna bat da. Prozesuan inplikaturik dauden pertsonen lana errazte aldera, gidan zehar iraunkortasunari, Tokiko Agenda 21i eta Eskola Agenda 21i buruzko oinarrizko informazioa eskainiko dugu.

Hiru oinarrizko osagarriren bitartez garatu behar da Eskola Agenda 21: ikastegiaren eta haren inguruaren ingurumenaren iraunkortasunaren, curriculum-berrikuntzaren eta erkidegoaren partaidetzaren bitartez. Hori horrela, arazoa ez datza soilik ikastegiaren alderdi anitzen egoera aztertzean, baizik eta inguruarena eta udalerrriarena ere aztertzean. Gidari, udalerrriaren diagnostiko sozio-ekonomikoaren eta ingurumenaren diagnostikoaren laburpena erantsi diogu, klima aldaketaren gai-alorrari dagokionez, hori baita ikasturte honetan jorratuko den lanaren xedea.

Hala Toki Agenda 21en eremuan nola Eskola Agenda 21enean garapen iraunkorreko eredu bilaketan garatu beharreko lanak, ingurumenaren ikuspegitik bezala giza ikuspuntutik ere, prozesua neurtu eta ebaluatzeko tresnak behar ditu, etengabeko hobekuntza sistema aplikatu ahal izateko modukoak. Aurreikusitako jarduketok ebaluatuko baldin baditugu erabakitako lan lerro estrategiko bakoitzaren barruan adierazle batzuk zehaztu beharko ditugu. Agiri honi Toki Agendako ingurugiro-adierazleei buruzko informazioa ere erantsi diogu.

Azkenik, gidari ingurugiroaren arloan Udalak dituen baliabideen zerrenda erantsi diogu, bereziki nabarmendu dugula, klima aldaketaren gaia eta ingurumen-hezkuntzaren gaineko udal baliabideen zerrenda.

## IRAUNKORTASUNA

Iraunkortasuna eta garapen iraunkorra 90ko hamarkadaren hasieran zabaldu zen, Nazio Batuek Ingurumenari eta Garapenari buruz egindako Hitzaldian. 1992 urteko ekainean burutu zen, eta Rioko Hitzaldia izenez ezagutzen dugu. Garapen iraunkorra terminoa Brutland Txostena deituriko agiri batean agertzen da lehenengo aldiz, eta honela dago definitua: "egungo betebeharrak asetzen dituen, etorkizuneko belaunaldiek beren betebeharrak asetzeko ahalmena arriskuan jarri gabe".

Euskal Herriko Autonomi Elkartean jarraituko diren garapen iraunkorreko estrategiak Garapen Iraunkorrari buruzko Euskal Ingurumen-Estrategiaren (2002-2020) esparruan daude. Agiri horretan, Batasun Europarreko garapen iraunkorrerako erabakitako Estrategiarekin eta ingurumenaren gaitan Ekintza Komunitarioaren Seigarren Egitarauarekin bat etorritik, bost dira Euskal Administrazio Publikoak bultzatu beharko dituen ingurumen-jomugak eta bost ere haiek ezartzeko behar diren baldintzak. Hara zer jomuga planteatu diren:

1. Aire, ura eta lurra garbiak eta osasungarriak izan daitezela bermatzea.
2. Baliabide naturalak eta hondakinak modu arduratsuan kudeatzea.
3. Natura eta biodibertsitatea babestea.
4. Lurralde oreka eta mugikortasuna.
5. Klima-aldaketaren eragina.

Iraunkortasunari, hortaz, ez zaio soilik ingurumenaren ikuspuntutik begiratu behar, baizik eta alor sozial eta ekonomikotik ere. Lan lerro horrek oinarritzko hiru zutabeotan du euskarria:

## TOKIKO AGENDA 21

Tokiko Agenda 21 tokiko agintariak garatuko duten Ingurumen-Ekintzaren Plana da, udalerrian neurriak eta jarduketak ezartzeko, horien bitartez, erkidegoaren barruan garapen iraunkorra lortzeko. Tresna hori baliatuko dute udalerriko ingurugiroa etengabe hobetzeko. Kontzeptu horren jatorria, Brasilen, Rio de Janeiron 1992ko ekainean, Ingurugiroari eta Garapenari buruz Nazio Batuek egin Hitzaldian edota "Lurraren Gailurra" deiturikoa dago. Hitzaldi horretan adierazi zen zenbaterainokoa den garapen iraunkorraren ekintza globaleko planaren barruan tokiko agintarien ekimenek duten garrantzia.

Aurreko atalean aipatu dugunez, erkidegoaren kideen bizitza kalitatea hobetzea hiru alderdi aldi berean desberdin eta osagarrietan nabarmendu beharko litzateke:

- Biziraupena eta inguruarekiko errespetua: INGURUMENAREN IRAUNKORTASUNA
- Ekitatea eta zuzentasun soziala: IRAUNKORTASUN SOZIALA
- Oreka ekonomikoa: IRAUNKORTASUN EKONOMIKOA

Tokiko Agenda 21en eremua, beraz, eremu europarra da eta aurretik ezarritako hainbat fase dituen prozedurari jarraitzen dio:

- Udalerriak bat egin behar du Aalboreko Gutunarekin (iraunkortasunaren aldeko Europako hirien konpromisoa jasotzen duen gutuna).
- Herritarrek parte hartzeko foroa eratu behar da.
- Ingurumen-auditoretza egin behar da:
  - Egungo egoeraren deskribapena.
  - Ingurumen-diagnosia.
  - Ingurumen-Ekintzaren Plana eta aldarrikapena.
- Udal Osoko Bilkurak Ingurumen-Ekintzaren Plana onartu behar du.
- Ingurumen-ekintzaren planaren jarraipena egin behar da.

Prozesua etengabea da; ekintza-planak taiututakoan ebaluatu egingo dira, eta ahal dela, hobetu, beste ekintza plan berri bat idazteko, eta hura ere ebaluatuko da eta horrela jarraituko da aurrera.

Herritarren partaidetzak lehentasuna du prozesu horretan guztian, eta horregatik tokiko agintariak Tokiko Agenda 21en barruan ezarritako partaidetza mekanismoak aprobe txatu behar dituzte herritarrek ingurumen-iraunkortasunean heziak izateko eta hartaz jabetzeko.

Alderdi honetan du, bada, Tokiko Agenda 21ek zentzu betea, hezkuntza sistema formala izango baita herritarren balioak, trebetasunak eta jarrerak aldatzeko agente nagusia, garapen iraunkorra lortzeko. Hori guztiori posible izango bada, ikastegiekin, aldarrikatzen dituen balioekin kontsekuentea izan behar du, eta horretarako abiapuntua aztertu, helburua lortzeko ekintzak eta neurriak adosteko.

## **TOKIKO AGENDA 21en ADIERAZLEAK**

Tokiko Agenda 21en prozesua ebaluatu ahal izateko, iraunkortasunaren adierazle zenbait ezarri beharko ditugu, informazioa eskuratzeko, agente desberdinen inplikazioa maila hautemateko, interes nagusiak ezartzeko, erdietsitako aurrerapenak jakitera emateko, eta abar.

Berebiziko interesa du udalerrri desberdinetako emaitzak alderatzea. Horretarako Euskal Herriko Autonomi Erkidegoan tokiko iraunkortasuna neurtzeko 12 adierazle ezarri dira, euskal udalerrri guztiontzat ber-berak. Hara zein diren adierazleak:

### **INGURUGIROA: LURRALDEA ETA PLANEAMENDUA**

1 adierazlea: udalerrriko alde publiko irekiak eta zerbitzuak erabili ahal izatea.

2 adierazlea: lurraren erabilera iraunkorra

### **INGURUGIROA: HIGIKORTASUNA ETA GARRAIOA**

3 adierazlea: tokiko higikortasuna eta bidaiariak garraiatzea

4 adierazlea: garraio azpiegituretarako erabili ohi den udal azalera banatzea

### **INGURUGIROA: BALIABIDE NATURALAK**

5 adierazlea: ur kontsumoa

6 adierazlea: energia kontsumoa

### **INGURUGIROA: HONDAKINAK**

7 adierazlea: hondakinak sortu eta kudeatzea

8 adierazlea: uretara isuritakoak

### **INGURUGIROA: INGURUGIROA UDALERRIKO JARDUERETAN BARNERATZEA**

9 adierazlea: ingurugiroa kudeatzeko sistemak udalerrian

### **GIZARTE ETA EKONOMI INGURUNEA**

10 adierazlea: pobrezia eta bazterketa soziala

11 adierazlea: langabezia tasa

12 adierazlea: herritarren asebetetasun maila tokiko erkidegoari dagokionez

Euskal udalerrri guztiek adierazle horiek onartu dituzten arren, udalerrri bakoitzak berezkoak dituen berezitasun eta beharren arabera beste adierazle batzuek ezar ditzake.

## **LAN ARLOA KLIMA ALDAKETA**

Klima aldaketa da Eskolako Agenda 21eko lan arloa ikasturte honetarako. Klima aldaketari buruzko Gobernu Arteko Taldearen (IPCC) azkeneko txostenak, 2007an argitaratu zena, 2100. urterako planetako batezbesteko tenperatura 1,8°C eta 4°C artean igoko del aurreikusten du. Gainera, itsas maila 18 eta 59 zentimetro artean igoko da, eta muturreko gertakari meteorologikoak areagotuko dira, hala nola, lehorreak eta uholdeak.

Azken mendean Lurreko klima aldatu egin da, eta azken 50 urteotan eman den beroketa, neurri handi batean, giza jardueraren ondorioz eman dela dioten froga berriak eta sendagoak daude. Klima aldatu eginten da arrazoi naturalengatik, eta aldatzen jarraituko du. Baina giza jarduerak nabarmen handitzen dute gas batzuen atmosferako kontzentrazioa, berotegi efektuko gasena adibidez (batez ere CO<sub>2</sub>).

Gure eguneroko bizitzako ohiturek garrantzi handia dute klima aldaketari eusteko. Ikastetxeok paper garrantzitsua izan dezakegu gutako bakoitzaren eguneroko jokaera pixkanaka aldatzean, horrela CO<sub>2</sub> gutxiago isurtzeko eta gauzak aldatzen laguntzeko. Garrantzitsua da ikasleei aldaketa klimatikoaren arrazoiak zeintzuk diren jakinaraztea eta aldaketa hori mugatzeko zer egin dezaketen ulertaraztea.

## **KLIMA ALDAKETA**

Lurreko klimaren aldaketa globalari Klima Aldaketa deitzen zaio. Arrazoi naturalen eta giza ekintzaren ondorio da, eta denbora eskala desberdinetan eta klima parametro guztientan gertatzen da: tenperatura, prezipitazioetan, hodeietan, etab.

Eguzkiaren beroa Lurrekoatmosferan gelditzen denean atmosferako gas geruza batek eutsita, Berotegi Efektua ematen del aesaten da. Gas horiek gabe planeta hotzegia izango litzateke eta ez litzateke guk gaur egun ezagutzen dugun bezalako bizitarik egongo. Beraz, lurreko batezbesteko tenperatura handiagotzen duen efektu naturala da, atmosferako gasen esker beroa pilatzen baita.

Halere, giza jarduerak atmosferako berotegi efektuko gasen proportzioa handiagotu du. Gas horien artean karbono dioxidoa, oxido nitrosoa edo metanoa aurkitzen dira adibidez, batez ere industriak, nekazaritzak eta erregai fosilen errekuntzak askatu dituztenak azken hamarkadetan. Joan den mendetik hona, herri industrializatuek gas horien kontzentrazioa %30ean handiarazi dute; lehen, giza jardueraren eraginik ez zegoenean, naturak berak orekatzen zituen isurketak.

Gaur egun, ia orokorra den adostasun zientifikoa dago gai honen inguruan: gure ekoizpen moduak eta energia kontsumoak klima aldaketa orokorra eragiten dute, eta horrek, aldi berean, eragin larriak izango ditu bai lurrean, bai eta sistema sozioekonomikoetan ere.

## ZERK ERAGITEN DU KLIMA ALDAKETA?

Lurreko klima berezko ziklo natural bat jarraituz era dinamiko eta aldakorrean egokitzen da.

Halere, patroï hori sistema konplexu bat da, eta horrengan atmosferak, lurrak, ozeanoak, sedimentuak, izotzak, izaki bizidunak... dute eragina. Sistema horretan gertatzen diren bai aldaketa naturalek, bai giza jardueren ondorioz gertatutako jarduerak (kausa antropogenikoek) klima aldaketa eragiten dute.

Hala eta guztiz ere, Klima Aldaketari buruzko Nazio Batuen Esparru Konbentzioak, *klima aldaketa* terminoa giza arrazoien eraginez gertatutako aldaketari arreferentzia egiteko erabiltzen du soilik, eta aldiz, arrazoi naturalen bidez sortutakoari erreferentzi egiteko, *klima aldakortasun naturala* erabiltzen du.

### **Faktore naturalak:**

Klima aldaketa eragiten duten faktore natural ugari daude. Garrantzitsuena artean plaken mugimendua, sumendi gertakariak, ozeano korranteak, kometak, Eguzkia... daude. Lurra bere gainetik dagoen guztiaren parte da. Planetako puntu bateko edozein anomaliak eragin globala du. Batzuetan berehala antzeman daiteke horien eragina, eta beste batzuetan, denbora behar izaten da efektuak ikusi ahal izateki, baina, azkenean, guztiek eragiten dute nolabait.

### **Kontinentee jitoa:**

Klimarekin zerikusirik ez duela iruditu arren, kontinenteen mugimenduak badauka eragina bizi garen kliman. Planetaren itxura, posizioa, forma, etab. aldatzen direnean, haizea, euria, ozeano korranteak etab. ere aldatzen dira. Kontinenteen jitoa oso prozesu geldoa da; beraz, kontinenteen posizioak milioika urtetan zehar zehazten du klimaren portaera.

### **Sumendien jarduera:**

Sumendi baten erupzioak milioika tona sulfuro dioxido, ur lurrin eta errauts askatzen ditu atmosferara. Material horiek gustiek klima patroïak alda ditzakete urtetan zehar.

Sumendi gasek eta errautsek eguzki izpiak igarotzea galaraz dezakete neurri batean, eta ondorioz, atmosferako maila baxuenetan tenperatura jeitsi egiten da, eta atmosfera zirkulazioaren patroïak aldatu egiten dira.

### **Ozeano korranteak:**

Ozeanoek, klima sistemaren alde garrantzitsua osatzen dute. Lurraren ia %71 betetzen dute, eta eguzki erradiazioaren bikoitza inguru xurgatzen dute. Ozeano korranteek, kanalen bidez bero kantitate handiak mugitzen



dituzte planetan zehar. Horregatik, munduko eremu batzuetan gehaigo nabaritzen da korronteen eragina besteetan baino.

### Eguzki jarduera:

Eguzkia Lurerko energia-iturri nagusia denez, eguzkiaren frekuentzian gertatutako edozein aldaketak du eragina gure planetan. Eguzkiaren azaleko orban kopuruak eguzki erupzioak zehazten dituela ohartu dira zientzialariak, eta zenbat eta eguzki orban gehiago egon, orduan eta eguzki-energia gehago igortzen dute. Eguzki jardueraren aldaketen eta gure klimaren aldaketen artean harreman zuzena dagoenik oraindik frogatu ez bada ere, datu ugari teoria hori berresten dutekla dirudi.

### Orbita aldaketak:

Lurraren orbita aldatu egiten da aldizka, hemisferio bakoitzak jasotzen duen erradiazio kopuruaren batezbestekoa aldatuz denboran zehar. Aldaketa horiek sorrarazten dituzte glaziazioak, hau da, epe luzeko udak eta neguak. Horiei glaziazio aldiak eta glaziazio arteko aldiak deitzen zaie.

### **Faktore antropogenikoak:**

Giza jardueren ondorioz, atmosferako gas batzuen kontzentrazioa aldatzen ari da. Gas horietako batzuek, Lurreko oreka erradioaktiboa aldatuz klima aldaketan eragiten dute; erradiazio hori hauste erradioaktibo gisa neurtzen da. Berotegi efektu gasek, mundu mailako eragina dutenak, lurrazala berotzeko joera dute, lurrak askatzen duen erradiazio infragorria xurgatzen baitute.

Kyotoko Protokoloak eragin ezberdina duten sei gas katalogatu zituen: karbono dioxidoa ( $\text{CO}_2$ ), metanoa ( $\text{CH}_4$ ), oxido nitrosoa ( $\text{N}_2\text{O}$ ), hidrofluorokarbonoen familia (HFC), perfluorokarbonoen familia (PFC) eta sulfuro hexafluoruroa ( $\text{SF}_6$ ). Alabaina, beroketan eragina ez duen beste substantzia bat ez zuten kontuan hartu: ur-lurrina, hain zuzen ere. Substantzia horietako bakoitzak duen eragina neurtzeko parametroak homogeneizatu egin dira, eta beren efektuak adierazteko karbono dioxidoaren kantitate baliokideak erabiltzen dira.

### Karbono dioxidoa:

Karbono dioxidoa da berotegi efektu gasen isurketari ekarpen handiena egiten dion gasa, Euskal Autonomi Erkidegoko gas guztien %88 baita.

Industria iraultza baino lehenago, atmosferako  $\text{CO}_2$  kontzentrazioa 280 ppm ingurukoa (milioiko parteak) izango zela uste da. Gaur egun, proportzio hori 360ra arte handitu da, eta aurreikuspen batzuek diotenez, mende amaierarako 500 ppm-ko zifrara iristeko aukera dago, horrela jarraituz gero.

1750. urtetik atmosferako  $\text{CO}_2$  proportzioa %31 handitu da. Gaur egun dagoen  $\text{CO}_2$  proportzioa ez da azken 420.000 urteetan gainditu, eta

litekeena da, azken 20 milioi urteetan gairitu gabeko proportzioa izatea. Gaur egungo hazkuntza abiadura inoiz baino handiagoa da.

Azken urteetako CO<sub>2</sub>-aren isurketa antropogenikoen hiru laurdenak gutxi gora behera, jatorri fosileko erregaiak erabiltzearen ondorioz isuri dira (adibidez, petrolioa, ikatza edo gas naturala). Gainerakoak, batez ere, luraren erabilera aldatzearen ondorio dira, ibilgailuen ihes hodian isurketen eta baso-soiltzearen ondorio bereziki (izan ere, landare estalkia galtzeak aldaketak eragiten ditu Lurrak isladatzen duen energia kantitatean, hau da, albedoan; eta gainera, atmosferan dagoen CO<sub>2</sub>-aren orekan, lurreko hezetasunen...dauka eragina.)

#### Metanoa (CH<sub>4</sub>):

Metanoa dagoen kateak motzeneko hidrokarburo asea da. Naturalki, gas egoeran egoten da. Zabortegietako gai organikoen deskonposizio anaerobikoen prozesuak eta animalia hausnarkarien hartidura enterikoa dira Euskal Autonomi Erkidegoko CH<sub>4</sub>-aren isurketa iturri nagusiak. Gas hori EAEko berotegi efektu gase guztien ia %7 da.

Azken urteetako gas naturalaren kontsumo energetikoaren hazkundeak, manipulatu eta garraiatzen den bitartean ihes galerak ugaritzea ekarri du; ondorioz, isurketak ere ugartu dira

#### Oxido nitrosoa (N<sub>2</sub>O):


EAEko N<sub>2</sub>O-aren isurketa iturri nagusienak, soroetan ongarri gisa erabilitako nitrogenoaren prozesu kimiko eta lurrunketak dira. Gas horren isurketak CO<sub>2</sub>-arenak baino askoz baxuagoak badira ere, atmosferan beroa erakartzeko duen gaitasuna CO<sub>2</sub>-arena baino 300 aldiz handiagoa da.

#### Gas fluoratuak (HFC, PFC, SF<sub>6</sub>):


Kyotoko Protokoloak kontuan hartzen dituen gas fluoratuak, CFC-aren ordezkotzat gisa erabiltzen dira batez ere: Industria kimikoan, tresneria elektrikoaren fabrikazioan eta beste erabilera batzuetarako (hozgarriak, agente itzaltzaileak, apar fabrikazioa, etab.); izan ere, Montrealgo Protokoloak CFC-ak kontrolatzen ditu 1987 urtea geroztik, ozono geruza untsutzeko gaitasuna dela eta.

Gas fluoratu familia honen ezaugarri nagusia duen beroketa potentziala edo GWP (Global Warming Potential) da. Adibidez, SF<sub>6</sub>-aren GWP-a 23.900 da, IPCCaren bigarren ebaluazio txostenaren arabera; horrek, SF<sub>6</sub> kg. batek 23,9 tona CO<sub>2</sub>-k hainbateko berotegi efektua eragiten duela esan nahi du.

Berotegi efektu gasen (BEG) iturri nagusiak EAEn 2005ean:



Sektorekako isurketak EAEn 2005ean:



## KLIMA ALDAKETAREN ERAGINAK

Klima aldaketari buruzko Gobernu Arteko Taldeak dioenez, XX. Mendean zehar, lurrazaleko tenperaturak batezbesteko 0,6°C gora egin du. Honako hauek dira temperatura aldaketak sorrarazitako klima aldaketa batzuk:

- **Itsas maila gora egiten ari da.** XX. Mendean zehar, glaziarretako izotza urtu egiten delako, eta itsasoko ur epelagoaren hedapena dela eta, itsas maila 10 eta 20 zentimetro artean igo zen. Ereduek XXI. Mendean zehar itsas mailak 85 zentimetro gora egin dezakeela aurreikusten dute. Hori kostako komunitateetat, urtegiengatik, koralezko uharrietatik... mehatxua da.
- **Artiko itsasoko izotza urtzen ari da.** Gaur egun izotzak uda garaian duen lodiera 1950ekoaren erdia da. Aldi berean, Artiko itsasoko izotza urtzeak aldaketa orokorrak ekar ditzake Artikoan izotzaren zirkulazioari eta horren urtze abiadurari dagokionez; izan ere, Urak izaotzak baino askoz ere bero gehiago xurgatzen du.
- **Ur azaleko tenperatura igotzea.** Horren ondorioz, azken hamarkadetan, mundu osoko koralezko uharrien, gutxi gota behera, laurden bat hil da. Koraleko animalia asko hil ziren koralarren dekolorazioaren ondorioz ahulduta, eta prozesu honek, lotura estua dauka ur epeltzearekin.
- **Euriteek uhaoldeak eragiten dituzte** lurralde askotan, tenperatura epelagoek uraren zikloa bizkortzen baitute. Azken mendean, presipitazioek %5 eta %10 artean gehitu dira. Azken hamar urteotan, uholdeak direla eta, ahunka milioi euroko galerak egon dira, aurreragoko hamarkadetan uholdeek eragindako galerak baino sei aldiz gehiago.
- **Mundu osoko lurraldeetan eragina duten aldaketak nekazaritzan:** Lurraldeetako limak epeltzen doazen heinean, erdialdeko latitude batzuek, hala nola, Europak, hazkunde sasoi gero eta luzeagoak dituzte; eta leku tropikalak, berriz, nekazaritzarako beroegi eta lehorregi ari dira bihurtzen.
- **Lehorte kopurua handituz joan daiteke.** Tenperatura altuek, munduko gunek batzuetan, lurrunketa eta lehorte tasa altuak dakartzate.
- **Ekosistemak aldatzen ari dira,** Tenperatura gora egiten duen heinean, espezieek gunek hotzagoetara migratu behar dute, habitat egokiago batetara, hil nahi ez badute. Bereziki ahul diren espezieen artean, galzorian dauden espezieak daude, hala nola koralezko uharriak eta poloetako animaliak (pinguinoak, hartz zuriak eta itsas txakurrak)
- **Gertakari natural latzenak ohikoagoak eta gogorragoak izan litezke.** Ikertzaile batzuen arabera, urakanen, tornadoen eta beste gertakari batzuen kopurua eta indarra hazi egin dira ezken 15 eta 20 urteetan.
- **Giza azpiegiturak.** Klima aldaketaren ondorioz, kostako herri batzuek uholdeak pairatzeko arrisku handiagoa izango dute, bai eta lurrak galtzekoa ere, higadura, lehorteak etb. direla eta. Ekaitz mareak direla eta, urtero 46 milioi pertsona uholdeak pairatzeko arriskuan egoten direla estimatzen da. Egokitze neurriak hartzen

bada, eta biztanleriaren aurreikusitako hazkundera kontutan hartzen ez bada, zifra hori handitu daiteke, 92 eta 118 milioi pertsona bitartera arte. Uhartear herrialde txiki batzuek arrisku handiagoa izango dute, eta herrialde horietako biztanleak barneko edo nazioarteko migrazioa behartuta ikus dezake bere burua.

## **KYOTOKO PROTOKOLOA: KLIMA LADAKETA GELDIARAZTEKO MEKANISMO INTERNAZIONALA**

1997ko abenduaren 11n herrialde industrializatuetako gobernuak dokumentu bat sinatu zuten, eta berotegi efektu gasak gutxiagotzeko neurri batzuk burutzeko konpromezua hartu zuten Kyoto hirian. Akordio hori da Nazio Batuen Klima Aldaketari buruzko Esparru Konbentzioaren Kyotoko Protokoloa (UNFCCC). Akordioa 2005eko otsailaren 16an jarri zen indarrean, 55 herrialdek berretsi ondoren; herrialde horiek berotegi efektu gasen %55 isurtzen dute.

Kyotoko Protokoloak etorkizuneko kliman aldaketak eragin nahi ditu. Izan ere, ingurumenari eragindako kalteen ondorioak oso larriak izango direla uste da, CO<sub>2</sub> isurketak gutxiagotzeko neurriak berehala hartu behar direla, nahiz eta horrek kostu ekonomikoak izan herrialdeentzat.

2008. eta 2012. urteen artean isurketa kutsakorrek batezbeste %5,2 gutxiagotzea adostu zuten akordioa sinatu zuten gobernuak. Errusiak 2004ko azaroaren 14an berretsi ondoren jarri zen indarrean akordioa.

Kyotoko Protokoloa da globoaren beroketaren aurka borroka egitera zuzendutako tresnarik garrantzitsuena. Hori da klima aldaketari aurre egin eta horren eraginak minimizatzeko nazioarteko mekanismo bakarra. Horretarako, legez beharrezkoak diren helburuak ditu, herri industrializatuek giza jatorriko berotegi efektu gasen isurketak gutxiagotu ditzaten, hala nola, karbono dioxidoarens, metanoarenak, oxido nitrosoarenak eta beste hiru gas fluoratuenak; hidorfluorokarbonoenak, perfluorokarbonoenak, eta sugre hexafluoruroenak.

Protokolo kide diren herrialde batzuek Konbentzio arraskatsutzat jotzen dute, beste zenbait gauzaren artean, mundu mailako kontzientziazio publikoa indartzeko aukera ematen baitu klima aldaketarekin erlazionatutako gaiari dagokienez. Halere, hasierako 34 lurraldeetatik, lauk ez dute berretsi: Estatu Batuak, Australiak, Liechtensteinek eta Monakok.

## **ETXEKO KONTSUMOA ETA KLIMA ALDAKETA**

Egoitza, merkataritza eta erakunde sektorea, bera bakarrik, munduko berotegi efektu gasen isurketen %25 baino gehiagoren sortzaile da. Beraz, industria ez da klima aldaketaren erantzule bakarra. Honako hauek dira gas isurketen arrazoiatariko batzuk:

### **Energia kontsumoa**

Energiaren eta klima aldaketaren artean lotura estua dago. Izan ere, energia fosil gehiegi kontsumitzeak ekarri du gaur egun pairatzen dugun, eta datozen hamarkadetan pairatzen jarraituko dugun, klima beroketa. Industria aroaren hasieratik, erregai fosiletatik (ikatz, petrolea eta gas naturala) ateratako energiaren kontsumoa hazten joan da. Orain arte izan dugun gizartea energia iturri horietan oinarritzen da, bai eta gure ekonomia ere. Baina erregai fosilak erabiltzeak berotegi efektu gasak sorrarazi ditu, globoaren beroketa eragiten dutenak.

Dagoeneko nabarmentzen den klima aldaketaren ondorioetako batzuk dira itsas mailaren igoera, gero eta larriagoak diren lehortekak, muturreko gertakari meteorologikoak... Globoaren beroketak ingurumenari, gizarteari, ekonomiari eta, beraz, lanbideari eragingo die.

### **Ur kontsumoa**

Ura edukitzea da gizarteak aurre egin beharreko arazo larrienetako bat. 1.100 milioi pertsona daude edateko urik ez daukatenak, eta horrek osasunarengan eta pobreziatik irteteko behar den garapen ekonomikoarengan eragiten dituen ondorioak pairatzen dituzte.

Uraren kudeaketak gatazka sozialak, politikoak eta ekonomikoak sorrarazten dute. Kudeaketa txar batek tentsioak sortzen dute askotan: Uholdeak, eremu publiko hidraulikoko hirigintza gehiegikeriak... Euri gertakari meteorologikoen maiztasun handiagoa aurreikusten dituzte adituek klima aldaketa dela eta. Ikuspuntu horretatik, uraren kudeaketa erronka baten aurrean dago: modernizatu egin behar du, eta aurrezteko, eraginkor izateko, baliabideak mantentzeko eta eskuragarri dauden tresna tekniko, ekonomiko eta sozialak erabiltzeko erronkari eutsi behar dio. Beraz, uraren kultura berri bat behar da.

### **Material kontsumoa: Hondakinak**

Hondakinen kudeaketa iraunkor batek klima aldaketa geldiarazten lagun dezake, izan ere, berotegi efektu gasen isurketa iturri garrantzitsua dira hondakinak. Hondakinekin balak eta konposta egin badezakegu ere, birziklatu edo erre egin baditzakegu ere, beti dago zabortege bat behar duen erreusa edo errautsa (hondakin arriskutsutzat jotzen dena). Zabortegeko gasen konposaketak karbono dioxido eta metano portzentaia handia dauka, klima aldaketari eragiten dioten gasak, hain zuzen ere. Jatorrian hiri hondakinak bereiziz gero (papera, metala, plastikoa, zuntzak), eta ondoren birziklatuz gero, edo gai organikoekin konposta eginez gero, berotegi efektu gasen isuri netoa baxuagoa izango litzateke.

Gainera erosten ditugun produktuen gehiengoak berotegi efektu gasen isurketak eragiten dituzte eta batean edo bestean, hau da, produkzio edo banaketa prozesuan. Kontuan izan behar dugu, baita ere, materialen kontsumoak energia, baliabide eta abarren kontsumoa dakarrela, eta horrek eragiten diola klima aldaketari.

## **Garraioa**

Garraioa gizarte eta ingurumen efektu handienetakoak eta larrienetakoak sortzen dituzten sektoreetako bat da. Bere energia kontsumoaren ondorioz, berotegi efektuaren eta klima aldaketaren garapena bultzatzen du.

Azken hamarkadetan, gure mugikortasuna nabarmen hazi da garapen ekonomikoa eta soziala dela eta. Mugikortasun hazkunde horrek guztioi eragiten diguten ondorioak ekarri ditu, ibilgailu pribatuen erabilera hazi baita garraio kolektiboen kalterako. Zentzu horretan, alde batetik, erregai fosilekiko (petroleoa eta eratorriak) dugun mendekotasuna handiarazi digu, eta, bestetik, CO<sub>2</sub> isurketen ondorioz, ingurumen kutsadura arazo larria sortu dugu.

Eragin horrek izaera konplexua du, eta beste ingurumen arazo batzuekin batera ari da gertatzen, hala nola, ozono geruzaren suntsidura edo aniztasun biologikoaren galera.



## **BASAURIKO UDAL DIAGNOSTIKOA KLIMA ALDAKETAREN ALORREAN:**

Basauriko udalerria Deriorekin, Erandiorekin, Etxebarrirekin eta Mungiarekin batera dago lan taldean. Lan talde honen helburua udalerrri horietan Eskolako Agenda 21 ezartzea da. Une honetan, Basaurik herri diagnostikoa eta garapen iraunkorrerako ekintza plana eginak dauzka.


Jarraian, klima aldaketaren alorreko udal diagnostikoaren laburpen bat egingo dugu, gai hori baita ikasturte honetan Eskolako Agenda 21ek landuko duena. Klima aldaketan eragina duten faktoreen arabera zatituko dugu; honako hauen dira:

- Mugikortasuna
- Energia
- Hondakinak
- Atmosfera kutsadura

## MUGIKORTASUNA:

### Ibilgailuen udal errolda:

Udal erroldaren arabera, 2005. urteko ibilgailuen atal 21.463 ibilgailuk osatzen zuten, honela banatzen zirenak:




### Mugikortasuna Basaurin:

Udalerriko mugikortasunean eragin handia dauka Basauriren eta Bilboren arteko harremanak, eta, neurri txikiago batean, inguruko udalerriek. Kontuan izan behar dira, baita ere, inguruanb dauden industria gune ugariak sortzen dituzten mugimenduak; batez ere, Arteagoiti, Etxebarria, Basconia, etab., eta Merkabilbao eta Bilbondo Zentro Komertziala.


	Eguneko batzbesteko joan-etorri kopurua /biztanleko	Ibilitako batzbesteko distantzia (km/biztanleko)	Joan etorrien batzbesteko iraupena (min/biztanleko)
<b>BASAURI</b>	<b>2.24</b>	<b>10.2</b>	<b>34.65</b>
EHAE	2.54	26.37	51

Basaurin egiten diren batezbesteko ibilbideak motzak dira (10.2 km) EAEko datuekin konparatuz gero (26,37 km.). Joan etorrietan emandako denborak ere pixka bat baxuagoak dira (36,65 minutu, 51 minuturen aldean)


**Basauritik irteten diren joan etorriak:**




**Basaurira iristen diren joan etorriak:**




**Joan etorrien arrazoa:**



### Joan etorriak garraiobidearen arabera:



### Joan etorrien maiztasuna:



### Herri bide-sarearen ezaugarriak:

Basauriko udalerrria bide ugari gurutzatzen dute; horietako batzuk udalaz gainekoak dira, hala nola A-8 autobidea, eta beste batzuk, udalaz gaineko izaera izan arren, herri barneko komunikaziorako erabiltzen dira. Bukatzeko, herriko bideak aipatu behar ditugu, udalerriko zonaldeak komunikatzeko balio dutenak.

Honako hauek dira bide horiek:

- Basauri eta Burgos arteko BI 625 errepidea. Errepide hori A-68aren eta A-8aren arteko lotura da.
- Boluetatik San Miguelerako errepidea.
- Artunduagatik San Miguelerako errepidea.
- Basozelaitik Artegoitirako errepidea, Pagobietako eta Goiriko sektoreak lotzen dituen zatia izan ezik.
- Uribarriko ingurabidea.
- Bizkotxaldeko adarra.
- Cervantes Etorbidea.

- Larrazabel Etorbidea.
- Gudarien Etorbidea.
- San Migueleko ekialdeko ingurabidea.
- San Migueleko mendebaldeko ingurabidea.
- Lehendakari Agirre Etorbidea.
- Kareaga Goikoa Etorbidea.
- Urbi kalea.

Bide horiek Bizkaiko bide-sare nagusiarekin erraz komunikatzeko aukera ematen dute; bai Bilbo eta Kantabria aldera, bai Vitoria-Gasteizera, penintsulako hegoaldera eta Mediterraneora, bai eta Donostiara eta Frantziarako mugara ere.

### **Oinezkoen kaleak. Bizikleta erreiak:**

Udalerrian heri barruko kale batzuk oinezkoen kale bihurtu dira:

- Begoñako Andra Mari kalea
- Balendin Berriotxo kalea
- Resurrección M<sup>a</sup> de Azkue kalea
- Araba kalea
- San Isidro plaza

Mugikortasun-planean bidegorri sare baten sorrera dago aurreikusita.

## **ENERGIA:**


### **Energia iturriak:**

#### **Gas naturala:**

Ez dago herri mailako daturik, enpresa hornitzaileak ez baitzizkigu eman. Halere, badakigu udalerriko gas naturalaren kontsumoa Bizkaiko (%17,6) baino pixka bat baxuagoa dela, bai eta EAEkoa (%22,2) baino ere.

#### **Elektrizitatea:**

Honako hau da 1998. urtetik 2005. urtera arteko energia elektrikoaren gastua sektoreen arabera (portzentakeetan):




### **Kontsumoaren banaketa sektoreen arabera:**

Lehen aipatutako datuak aztertuz gero, ikus daiteke 2000. urtean gehien erabilitako energia iturria elektrizitatea izan zela, lehen postua kenduz petroliotik eratorritako erregai likidoei, EAEn gehien erabiltzen den energia motari.


Garraio sektorearen energia kontsumoa %19koa da, eta industria sektorearena berriz, %56,9koa; garraio sektoreak energia iturri gisa erregai likidoak soilik erabiltzen dituen ez ia, eta industria sektoreak, berriz, elektrizitatea erabiltzen duenez batik bat, erraz ulertzen da energia kontsumoaren banaketa.

Jarraian datozen grafikoetan sektoreen araberako kontsumoaren banaketa irudikatzen da, bai eta sektoreen araberako EAEko kontsumoa ere.


Lehen sektorea, etxe sektorea eta zerbitzu sektorea:




Garraioa:



Industria:



## Kontsumoaren araberako banaketa EAEn:



## Udal administrazioaren kontsumoa:

2000. urteko datuen arabera, honako hau da udal instalazioetako energia elektrikoaren, gasolioaren eta gas naturalaren gastua (udal instalazioen gastu ekonomikoari dagokionez):

Udal saila	% ELECTRIZITATE gastua
Centros de trabajo	6,77
Locales destinados a servicios públicos, gestionados por personal municipal	6,98
Locales cedidos o alquilados a terceros para servicios municipales	1,80
Locales cedidos a grupos o asociaciones para su uso exclusivo	3,38
Alumbrado público	54,75
Centros escolares	19,55
Semáforos	0,50
Depósitos de aguas	4,56
Locales o viviendas alquilados	0,09
Servicios públicos	1,62



Udal Saila	% GASOLEO gastua
CP. Etxegarai	8,46
CP. Lope de Vega	12,46
CP. Hernán Cortés	2,82
CP. Velázquez	18,22
CP. Kareaga Goikoa	13,86
CP. José Etxeagarai	7,65
CO. Gaztelu	13,86
Brigada	5,45
Ikastola	10,31
Preescolar San Fausto	2,80
CP. Sofia Taramona	4,11


Udal Saila	%GAS gastua
Centros de trabajo	29,76
Locales destinados a servicios públicos, gestionados por personal municipal	56,63
Centros escolares	13,61

Udaleko energia fakturaren %88,2 elektrizitate kontsumoari zor zaio, eta erregai kontsumoari, berriz, fakturaren %11,8 baino ez.

### **Energia berriztagarrien erabilpena:**

Udalerrian badira energia berriztagarriak (eguzki energia) erabiltzen dituzten zenbait instalazio.

Jarraian datorren grafikoan, Basaurin iturri berriztagarrietatik abiatuta sortzen den energia azaltzen da:



Honako eraikin hauek energia berriztagarriak (eguzki energia) sortzeko instalazioak dituzte:

<b>BASAURIKO EGUZKI ENERGIA EKOIZPEN INSTALAZIOAK</b>			<b>ERAIKITZE URTEA</b>
Bidebieta laborategirako fotovoltaikoa.	BHIko eguzki	praktika instalazio	1999
Bidebieta konektatutako fotovoltaikoa.	BHIIn, eguzki	sarearekiko instalazio	2002
Energia konektatutako fotovoltaikoa Kultur Etxean.	saltzeko eguzki	sarearekiko instalazio	2003
Energia konektatutako fotovoltaikoa CP. Gaztelun	saltzeko eguzki	sarearekiko instalazio	2003
Energia konektatutako fotovoltaikoa Basaurin	saltzeko eguzki	sarearekiko instalazio	2003
Energia konektatutako fotovoltaikoa Kareaga Goikoan	saltzeko eguzki	sarearekiko instalazio	2003
sarearekiko instalazio fotovoltaikoa. IES Urbin	konektatutako eguzki		2003
sarearekiko instalazio fotovoltaikoa. IES Uribarrin	konektatutako eguzki		2003
Eguzki instalazio fotovoltaikoa Jose Etxegarain			2006
Konexio fotovoltaikoa Taramonan		Sofia	2006
Konexio fotovoltaikoa Velázquez			2006

## HONDAKINAK:

Basauriko udala Arrigorriaga, Derio, Erandio eta Etxebarri udalekin batera lantalde bat osatzen du. Talde honen helburua udalerrri hauetan Eskolako Agenda 21 ezartzea da. Une honetan Basaurik udal diagnostikoa eta lehenengo ekintza-plana bukatuta dauka.

Ondoren udal diagnostikoaren laburpena aipatuko dugu, kontuan harturik gai hau dela, hain zuzen ere, ikasturte honetako Eskolako Agenda 21-en lan helburua.

### Hiri Hondakinen Sailkapena Bizkaiko Udal Hondakinak Kudeatzeko Plan Integralean (2005-2016)

Bizkaiko Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Integralean, hiri hondakinak hiru multzo handi hauetan banatzen dira:

- 1) Etxeko hondakinak (EH)
- 2) Etxeko hondakinen parekagarri diren hondakin industrial, komertzial edo instituzionalak (HIKIP)
- 3) Eraikuntza eta eraispeneko hondakinak.(EEH)

Udal hondakinen sailkapena honako taula honen arabera da:

Sortzen diren lekuak	Etxe partikularrak	Etxeko Hondakinak	<u>EH</u>	<u>HH</u>
	Saltokiak Bulegoak Zerbitzuak	Hondakin komertzial edo instituzional parekagarriak	<b>HIKIP</b>	
Arriskutsuak ez diren guztiak eta bere izaera edo konposizioagatik gorago aipatutako leku edo jardueretan sortzen direnekin parekagarriak direnak	Jarduerak	Hondakin industrialak, etxekoekin parekagarriak	<b>HIKIP</b>	
	Garbiketa	Bide publikoak Berde guneak Atsedenlekuak Hondartzak	<b>HIKIP</b>	
	Abandonoa	Etxeko animalia hilak (HIKIP) Altzariak (EH) Tresnak (EH) Ibilgailu abandonatuak (HIKIP)	<b>EH HIKIP</b>	
	Eraikuntza eta etxe-konponketa	Eraikuntzako obra txikiak Etxeak konpontzeko obra txikiak	<b>EEH</b>	

## **HIRI HONDAKINAK BILDU ETA ELIMINATZEKO ZERBITZUAREN EGITURA BASAURIKO UDALEAN**

1999eko datuak kontutan hartuz 15.000 tona Hiri Hondakin bildu ziren, hau da, egunero Basaurin 0,87 kg Hiri Hondakin pertsona bakoitzeko sortzen dira. 2006ean 17.000 tona Hiri Hondakin bildu ziren. Hondakin guzti hauetatik %34,41a birziklatzen da.

Dokumentu honetan Basauriko hondakin desberdinen ekoizpena eta kudeaketari buruzko datuak agertzen dira. Sailkatzen ez diren eta zabor poltsan utzitako hondakinak eta sailkatzen diren eta edukiontzi espezifikoetan sartzen diren hondakinen bilketa eta kudeaketa desberdindu behar dugu.

1999an Basaurin birziklatutako hondakinen kantitatea 1.892,8 tonakoa izan zen, hau da, hondakin guztien %12,6a. Gainerakoa Igorreko zabortegira eramane zuten (12.502,2 Tn), Igorreko zabortegia Garbikerrek kudeatzen du eta Eusko Jaularitzak hiri hondakinak jasotzeko baimena eman dio.

2004an berriz, Zabalgarbiko balorizazio energetikorako planta zabaldu zen eta Hiri Hondakien kopuru guztiaren (16.889 Tn) %41,5a bertara eramane zuten, hau da 7.011Tn, beraz %17,5<sup>a</sup> birziklatu ziren (ia 3.000 Tn hondakin). Gainerakoa (%40) zabortegira eramane zuten. Hurrengo urtean, 2006ean, Zabalgarbira eramane zituzten hondakin kopurua %64,02a izan zen eta birziklatutako hondakinak %34,41a izan zen.

Hemen agertzen diren datuek ez dute isladatzen Basauriko Garbigunera zuzenean eramane duten kantitateak: 3300 hondakin tona baino gehiago izan zirela uste da.

### **A. DENA BATERAKO HONDAKINAK (birziklatzen edo berreskuratzen ez direnak)**

Basaurin CEPSA enpresak hondakin mota honen bilketa eta bideen garbiketa egiten du. Dena baterako hondakinak Igorreko zabortegira eramane dute.

<b>Urtea</b>	<b>Bildutako Tonak</b>
<b>2001</b>	13.598
<b>2002</b>	13.668
<b>2003</b>	14.215
<b>2004</b>	13.934
<b>2005</b>	13.212
<b>2006</b>	13.136

2005ean Bizkaian 366.373 Tona dena baterako hondakin bildu ziren, hau da 321 kg biztanleko urte osoan.

## **B. BEIRA**

ECOVIDRIOk beira bilketa egiten du. 1999 urtean 617,25 Tn beira bildu ziren, hau da 13,11 kg/biz/urte.

<b>Urtea</b>	<b>Bildutako Kiloak</b>
<b>2001</b>	676.919
<b>2002</b>	701.033
<b>2003</b>	643.084
<b>2004</b>	657.780
<b>2005</b>	733.338
<b>2006</b>	780.183

2006an 780,18 Tn beira bildu ziren udalerrian dauden 141 edukiontzietan., hau da, edukiontzi bat 312 biztanleko.

Bizkaian 2006an 19.097 tona beira bildu ziren, 16,63 kg biztanleko.

## **C. PAPER ETA KARTOIA**

Paperaren bilketa CESPAn enpresak egiten du. Zerbitzu hau egiteko enpresak langile bat eta zapaltzeko kamioi bat du.

Gaur egun 102 edukiontzi daude udalerriri osotik banatuta. 2006 urtean 1.622 Tn paper bildu ziren, hau da 36 kg/biz/urte

<b>Urtea</b>	<b>Bildutako Kg</b>
<b>2001</b>	1.209.260
<b>2002</b>	1.249.390
<b>2003</b>	1.291.739
<b>2004</b>	1.294.924
<b>2005</b>	1.579.147
<b>2006</b>	1.621.533

